



❖ IÑAUTERIAK Kartel lehiaketan parte hartzeko epea bihar bukatzen da

Bihar da azken eguna Inauterietako kartel lehiaketan lanak aurkezteko. Biterin entregatu beharko dira lanak, 18:00etatik 20:00etara, eta irabazleak 420 euro jasoko ditu. Lanak 38cm zabal x 44cm luze beharko ditu, eta hitz hauek: *Hernaniko Inauteriak 2009.* ||

❖ ELIZA Adiskidetzearen eta barkamenaren Ospakizuna gaur

Hernaniko eliz parrokiak jakinarazi duenez, gaur, astelehena, Elkarteko Adiskidetzearen eta barkamenaren Ospakizuna izango dute, Eguberrietako prestaera bezala. Gaur, arratsaldeko 19:30etan. ||

❖ ZAHARREN EGOITZA Goiz Eguzki jubilatuko abesbatza gaur

Maria Magdalena Zaharren Egoitza kantua izango da gaur nagusi, Goiz Eguzki jubilatuko abesbatza izango baita bertan, 18:00etan. ||

Aimar Olaizola eta Oier Mendizabal txapelak, Berasaluze eta Beginoren aurka jokatuko dute igandean; bihar aurkezpena

Buruntzaldeko herri guztietan jokatuko dira pelota partiduak igandean, pelota indartzeko jardunaldien barruan. Aurkezpena bihar egingo dute Lasarte-Orian, 12:00etan.

IGANDEAN Hernaniko frontoian gozatzeko aukera izango da, bi pelota partidu haundi jokatuko baitira. Aurrenekoan Saralegi eta Oteiza arituko dira Mendiluze eta Argoterren aurka; bigarren partiduan berriz, egungo binakako txapelak diren Aimar Olaizola goizuetarrak eta Oier Mendizabal hernaniarrak jokatuko dute, Berasaluze VIII eta Beginoren aurka. Jaialdia 17:30etan hasiko da eta sarrerak salgai daude Carreron, Onddin eta Ibaimendin; eserita ikusi nahi izanez gero 30 euroan, eta zutik berriz, 15 euroan.

'Pilota festa Buruntzaldean' Buruntzaldeko herri guztietan jokatuko dira pelota jaialdiak igandean, pelota indartzeko antolatutako jaialdiaren barruan. *Pilota festa Buruntzaldean* izena jarri diote, eta Hernani, Usurbil, Lasarte-Oria, Astigarraga eta Urnieta pelotako *teknifikazio* taldeek bultzatu dute. Jaialdiaren aurkezpena bihar izango da Lasarte-Orian, 12:00etan, eta bertan bilduko dira eskualdeko sei Udaletako ordezkariak, pelotako elkarteak eta Buruntzape elkarteko kide bat. ||



Esna eta Gorrotxategi Gipuzkoako txapelak, 2.mailan, Huizi eta Txapategiri 22-11 irabazita

Iñaki Esna eta Aitor Gorrotxategi Gipuzkoako txapelak irabazi dute, bigarren mailan, Huizi eta Txapategiren kontra. 22-11 irabazi dute partidua bi hernaniarrek, eta datorren urtean goragoko mailan jokatzeke merezimenduak eginak dituzte. Lehenengo mailan jokatzea aseguratua dute, baina badute aukera bat Ohorezko mailara zuzenean igotzeko ere. Hori asteburu honetan jakingo dugu, promozioko partidua irabazi beharko baitute horretarako. ||

Giro goxoan Ruper, eta entzuleak

Bi ordutik gorako kontzertua izan zen, eta kanta berriak eta zaharrak kantatu zituzten; asko, entzuleek lagunduta.

«GOXOA, giro goxo» izan zela azpimarratu zuten *ruperzaleek*, larunbateko Biteriko kontzertuaren ondoren. Ruper Ordorikak 2 ordutik gorako kontzertua eman zuen, Arkaitz Minerrek, Lutxo Neirak eta Asier Oleagak lagunduta, Biteri bete hernaniarren gozamenerako. Apenas nekatu ziren entzuleak, lau zapabost bis kantatuz baitzizkioten oñatiarrari.

Kantu zahar eta berriak
Aurtengo azken kontzertua zuen Ruperrek larunbatekoa,

eta kontzertu dinamiko eskaini zuen, kantu zahar, ez hain zahar eta berriak uztartuta. «Beti betiko» kantuak izan zituen tartean, *Ene Begiek*, *Martin Larralde* edo *Hiriak*, esaterako. Berriagoak ere izan zituen, *Bi Esku*, adibidez, giroa erabat goxatu zuena. Edo Mikel Laboari eskaini zion *Otalorea*.

Gaueko 22:30ak pasatxotan hasi zen kontzertua, eta 00:45etan oraindik jendeak *beste bat* eskatu zion artista oñatiarrari; gozo egon ziren seinale, inondik ere! ||



Arkaitz Miner, Lutxo Neira, Ruper Ordorika, eta Asier Oleaga, larunbateko kontzertuan.

KOKKAL
TA BERNARDO
BERRIKO
ALIKERNA
DANAKIN
GOZATZEN
nagusia, 15 hernani

GABONETAKO ZOZKETA
Ekarri zuen marrazkiak gure bulegora eta parte hartu PORT-AVENTURARA joateko egingo dugun zozketan

BALDINTZAK:
Gaia: "BIDAIK"
Adina: 4-11 URTE
EPEA: urtarrilaren 8a baino lehenago.

SARIA:
Pazko astea (apirilaren 13tik 19ra)
egonaldia Port-Aventuran
2 heldu eta 2 umeentzako + 2 egunetako sarrerak

HERNANI BIDAIK
Urbeta, 6
943 33 00 49
hernanib@teletel.es
www.hernanibidaiak.com

ZOZKETA EGUNA: URTARRILAREN 9a GURE BULEGOAN, ARRATSALDEKO SEIRETAN.

VINOS RIOJA
PAUL: 619 585 907

Betiko giroa!!

KALE NAGUSIA 61,
20120 HERNANI. TEL: 943 55 64 92

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● **Eguzez**: **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077 ● **Gauzez**: **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA
GAUR Behe lainoa eta hotza nagusi, gaur. Eguzkiak goxatuko du eguerdi-arratsalde parteia, baina izkutatzen denean hotz egingo du. Minimoak 3° - Maximoak 10°.

BIHAR Bihar ere tankerako eguraldia. Goizaldean behe lainoa eta egunean zehar eguzkia nagusi. Hotz egingo du. Minimoak 1° - Maximoak 11°.



Goiz Eguzkiko txapelkun eta saritu guztiak, elkarteko eta Udaleko arduradunekin batean. (Arg: Lauri)

Udazkeneko txapelketetako sariak banatu zituzten atzo Goiz Eguzkin

Tute, mus, eskoba, puntu, billar, toka, bote eta igel txapelketetako irabazleek jaso zuten saria, eta ondoren Santo Tomas ospatu zuten.

HERRITAR askok hartzen du parte Goiz Eguzkik udazkenetan antolatzen dituen txapelketetan, eta onenek, atzo jaso zuten merezitako saria.

Txapelkunak

Txapelketetan irabazleak honakok izan ziren: Musean

Pedro eta Martin Atxaga; tutean, Daniel Carrera eta Basilio Barrado; eskoban, Gabriel Asensio eta Sabino Mateo; puntuan Daniel Carrera eta Basilio Barrado; eta billarrean, Alfredo Galan.

Gizonezkoetan tokan eta botean irabazlea, Jose Lopez

izan zen; igel jokoan berriz, Francisco Godinez.

Emakumezkoetan aldiz, tokan Sara Merinok irabazi zuen, botean Vicenta Lopezek eta igel jokoan Emilia Sanchezek.

Sari banaketaren ondoren, txistorradorekin ospatu zuten Santo Tomas eguna. **II**

◆ FUTBOLA - Gorengo maila

Hernanik beharrezko partidua irabazi zuen larunbatean, Berioaren kontra

Gorengo mailan, Hernanik irabazi beharra zeukan lehenengo postuetako borrokan jarraitzeko, eta hala egin zuen; 2-1 irabazi baitzion Beriori, partidua gogorra jokatu. Hernaniren golak Gorka Galdeanok (buruz) eta Joseba Portillok (urrutitik) sartu zituzten. **II**

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† XABIER ZUGASTI ZUBILLAGA

JAUNA
Atzo hil zen, 75 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian bego -

Anai-arrebak: Miren Terese eta Pedro Fermin (Miren Begoñe Maruri Larraberen alarguna); ilobak: Itziar eta Joxan, Xabier eta Miren Beñate, Jon eta Mari Carmen, Iñaki eta Jaione, Mikel eta Amaia; lehengusuak eta gainerako ahaideek.



Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzela **GAUR, ASTELEHENA, arratsaldeko SEITERDIETAN, JOAN BATAIA-TZAILAAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2008ko abenduaren 22an

Helbidea: Karobieta, 1Bis - 6. B

Oharra: Gorputza HERNANIKO ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN arratsaldeko 17:00ak arte egongo da.

◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

Sarrera bat aurkitu dugu Plaza Berriko servituktan, ahaztu duenak **deitu: 653 748 350**.

Pisua salgai, azken pisua. Eguzkitsua, aszensorea, ganbara... **Deitu: 943 55 04 26**

Taberna salgai Hernaniko kaxkoan 60m2 + almazena 30m2. **Deitu: 616 383 168**.

Alokatzeko: Pabilo industrial berri-berria. 150 m2. Poligonoa: Txalaka Araneder (Astigarraga). **943 33 05 16 (20:00etatik aurrera)**.

Etxe berria estrenatu ezazu, hemendik 18 hilabetera, 2 logela, aszensorea, 60m2 (249.000euro). **Deitu: 671 124 594**.

Etxeko konponketak egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak... Seriotasuna. **Deitu: 616 886 660**.

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa.

Tel.: **656 78 64 15** (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. **Deitu: 943 33 07 35** (Lizeaga, 2 P-1 B).

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta pertsonalizatuak. Gaztetzeko tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Antiacne tratamendua, "Manchas". Plataforma bibratzailea. **Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78**.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diaferoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta ber-tebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologikoa eta ber-tebrala, reflexologia, auriculoterapia,... **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA			PELOTA-Gipuzkoako Txapelketa		
Gorengo maila	Hernani-Berio	2-1	Seniorkak Finala	Esnal-Gorrobategi/Huizi-Txapartegi	22-11
Jubenila. Liga nazionala.	Hernani-Athletic Club	1-3	Infantilak	Hodei Noble-Segura	2-1
Jubenila. Lehenengo maila	Mondragon-Hernani	2-0	Paleta	Tijero-Lukas/Pierola-Argain	10-30
Kadeteak. Ohorezko maila	Arrasate-Hernani	2-1	Paleta	Lizeaga-Perez/Irazustabarrena-Gutierrez	24-30
Infantilak. Ohorezko maila	Hernani-Hondarribia	0-0	ERREMONTA		
Infantil Txiki	Hernani-Arrasate	3-3	Ibarzabal-Etxezabal/Zulaika-Baleztena		33-35
SASKIBALOA			Zeberio II-Agirrezabala/Urriza-San Miguel		38-40
Seniorkak	Cafes Aitona - Teklan Laser Hernani K	50-57	Uterga-Iriarte/Iñigo-Badiola		40-37
Jubenilak	Hernani-Olarso	85-49	Agirresarobe-Olazar/Bereziartua-Ion		30-24
ERRUGBIA			WATERPOLOA		
Senior A. Ohorez B.	Gernika-Hernani	51-0	Seniorkak	Hernani-Castellae	10-9
Jubenilak	Hernani-Gaztedi	52-0	ARETO FUTBOLA		
Kadeteak	Hernani-Gaztedi	48-7	2.maila	Hernani-Gure Txokoa	8-4



BALANTXA



ANTZIOLA, 12

943 576115

HERNANI

NAGUSIA, 17

943 334022

-%3



NESPRESSO KRUPS ESSENZA AUTOMATIKOA

159 €

- 50€-ko TXEKEA OPARI

NESPRESSO KRUPS ESSENZA MANUALA

129 €

- 50€-ko TXEKEA OPARI



MP5



3 URTEKO GARANTIA

PREZIO HOBERENAK

MERKEAGO AURKITZEN BADUZU PREZIO HORRETAN SALDUKO DIZUGU